

B e u s k a r a r e n BERRIPAPERA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Gasteizen ekainaren 24an egindako batzar osoan. Datozen hamar urteotako hizkuntza-politikaren oinarritzko lan-tresna izateko asmoz eratu den plan hau gauzatzekoan, lagun-talde zabala hartuta, iritzi-aniztasuna bermatuta egotea zaindu nahi izan da. Planean, helburu nagusiaz gain, hiru helburu estrategiko jaso dira: euskararen ondorengoetaratzea, euskararen erabilera eta euskararen elikadura.

80ko hamarkadaz geroztik, eta neurri handian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan/Komunitatean Euskararen legeak onartu ostean, aurrerapen handiak izan dira gure herrian, hizkuntza normalkuntzaren ikuspegitik begiratuta. Azken hemezortzi urteotan, euskara batu sendotu egin da, euskalkiek ospea dute ostera, elebidunen kopurua igo egin da eta euskara berreskuratzen ari da galtzear zegoen tokietan.

Aldaketa hauek, jakina, gizarte-ekimenak euskararen alde egin duelako eta erakundeek ere euskararen erabilera areagotzeko ekintzak bultzatu dituztelako gertatu dira. Are gehiago, hizkuntza ahulenaren alde, euskararen alde egin den tokietan eta uneetan bakarrik gertatu dira lehen aipatutako aldaketak. Bi datu horren frogagarri: batetik, familia bidezko hizkuntzaren jarraipena dela eta, gazteen

artean ez da antzematen galerarik euskararen jarraipenari dagokionez, Iparraldean izan ezik; bestetik, euskarari buruzko gaitasuna dela eta, 6 urtez gorako euskal herritarren % 26 elebidunak dira, baina 16-24 urte bitartekoak hartuz gero, elebidunen kopurua % 33koa da, eta gaztetxoenen artean, elebidunak elebakarrak baino gehiago dira. Hala ere, egia da gazte horietako asko errazago moldatzen direla gaztelaniaz euskaraz baino; izan ere, gaztelania baitute lehen hizkuntza.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Azken urteotako bilakaera soziolinguistikoak erronka zabalagoi eta orokorragoei heldu beharra erakusten digu: asko da orain arte egindakoa baina askoz gehiago egiteko dagoena. Hortxe kokatu behar da, hain zuzen, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia: XXI. mendeko euskal gizarte-

ko herritar elebidunen beharrrak erantzuten laguntzeko tresna hain zuzen. Behar horiek, laburbilduz, hirutara ekar daitezke: euskararen ezagutza eta jarraipena bermatzea; euskararen gizarterabilera esparruak ugaltzea; eta, komunikabideetan eta kulturgintzan, behar berrietara egokitutako eskaintza nahikoa izatea.

Planaren helburu nagusia

Labur-labur esanda, elebidunen kopurua ugaltzea da eta euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea; Euskal Herrian, euskararen berreskuratzen osoa lortzeko maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen aldeko urratsak areagotzea. Beraz, bi hizkuntza indartsu -gaztelania eta euskara- izango dituen gizartea lortu nahi da. Izan ere, elebitasuna abe-

S U M A R I O A

- 1** Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia
- 2** Laburrak
Marijane Minaberri
Agenda
- 3** Euskara enpresetan
Etengabeko prestakuntzarako laguntzak
Europako ikerketa -bisitak
- 4** Pertsonaiak
Lehen begiratuan

rasgarria baita norbanakoentzat; xamurto egiten baitu kultur tradizio ezberdinetako pertsonen arteko komunikazioa; eta, ondorioz, gizarte jasankorragoa eta lotuagoa izaten lagun baitezake.

Plana gauzatzeko eman diren urratsak

Plana osatzeko zutabe nagusiak elkarrizketa eta adostasuna izan dira. Euskararen Aholku Batzordean luze-zabala eztabaidatu eta landu da, gure gizartearen diren bateko zein besteko iritziak jasotzearen. Finean, erakundeen, elkarten eta herritarren auzolanean oinarritu da. Horixe baita, funtsean, plan estrategiko baten giltza: euskararen zabalkundearen eta erabilera zerikusirik eta zeresanik izan dezaketen erakundeen, elkarten, taldeen eta norbanakoen indarrak egituratu, batu eta ahal den etekinik handiena ateratzea gure herria benetan elebidun izan dadin.



Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

LABURRAK

**Urrezko idazluma Saria 98
Bitoriano Gandiagarentzat**

Bilboko Liburu Azokak Urrezko idazluma Saria eman dio Bitoriano Gandiaga idazleari. Sari honen bidez Bizkaiaren izena, izaera eta hizkuntza zabaltzen aritu direnen ahalegina eskertu nahi da. Beraz, Bitoriano Gandiagaren izena, orain arte Urrezko Idazluma Saria eskuratu duten bederatzit pertsonaia eta erakundeei gehituko zaie: Manu Leginetxe, Aita Barandiaran, Javier Sadaba, BBK-Temas Vizcainos, Jon Bilbao-Eusko Bibliographia, Asociación Artística Vizcaina, Zurgai aldizkaria, Manu Montero eta Federico Krutwig. Bilboko Liburu Azoka, Euskadiko Liburu Azoka kanpainaren barruan kokatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan 18-20 liburu azoka antolatzen dituen egitasmoaren barruan hain zuzen.

**Euskara eskura
egitasmoak urtebetetzea**

Leioan eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko asmoz sortu zen *Euskara eskura* egitasmoak urtebeteko ibilbidea egin du dagoeneko. Horretarako, Leioan

ekintzak antolatzen dituzten erakunde, elkarte eta taldeekin hitzarmenak sinatu zituen Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuak, bakoitzak zituen aukeren arabera euskararen erabilera bultzatzeko

konpromezua hartuz: a) ageriko elementuetan hizkuntza biak parekatzea; b) monitoreek beti euskaraz hitz egitea, eta ingurukoekiko harremanak gutxienez elebidun izatea; c) elkarteak gune euskaldun izendatzea. Urtebeteko epean, hitzarmena sinatu duten taldeen kopurua 36tik 45era igo da, aurrera egin da a) egoeratik b)-ra, eta euskara zerbitzuaren laguntzak modu garrantzitsuan areagotu dira.

Marijane Minaberri

Ohorezko diploma eman dio Euskaltzaindiak

Marijane Minaberri baxenafartarrari, 1926. urtean Bankan sortu baina aspalditik Uztaritzen bizi den idazleari.

18 urterekin ikasketak utzi eta Bankako Herriko Etxeko idazkarriz sartu zen. Hamar urte beranduago Uztaritzera joan zen bizi izatera, familiarekin batera. Orduan

Baionako ikastetxe batean irakasle jarri zen.

Handik, berriz, *Basque Eclair* egunkarira joan zen, idazkari lanetara. Paben egiten zen egunkari hura, ezin biziz, *Sud Ouest* egunkariak erosi zuen, langileak

barne.

Gaztetan hasi zen idazten Marijane Minaberri, lagun baten heriotzaren ondotik, adiskide galduari olerki bat eskainiz. Gerora, hainbat lan sortu ditu poesian zein antzerkian, bere izenez zein Ande Reo edo Atalki goitizenez. Marijane Minaberrik haurrentzat idatzi ditu bere orri politenak: 1961. urterako *Mari Gorri* liburuxoa argitaratua zuen, handik laster *Itxulingo Anderea* eta geroago *Xoria Kantari*.

Musikaz ere jantzi izan dituzte Marijaneren olerkiak; esaterako Gabriel Lertxundi apaiz beneditarrak.



Orain Oskorri taldeak *Marijane Kanta* zan izeneko diskoa egin du Marijane Minaberriren hitzekin, barnean liburuxka bat dakarrela kantuen hitzekin.

AGENDA

Jesus Maria Leizaola Saria

Euskal Autonomiaren inguruan egindako ikerlanak saritzeko, Herri-Ardurularitzaren Euskal Erakundeak egin du aurtengo Jesus Maria Leizaola Sarirako deia. Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek 1.000.000 pezetako lehen sari bat eta 500.000 pezetako akzesita eskuratu ahal izango dute.

Euskal Autonomiaren inguruan, lege, historia, ekonomia, soziologia eta politikaren ikuspuntuetatik egindako zientzia-ikerlanik hoberenei emango zaizkie. Idazkiak Herri-Ardurularitzaren Euskal Erakundearen egoitzan aurkeztu ahal izango dira, abuztuaren 28a baino lehen.

Sariaren erabakia 1998ko abenduaren 1a baino lehen hartuko du epaimahaiak.

Donostia Hiria literatur sariak

1999ko Donostia Hiria Literatur Sarietarako deia egin da jadanik. Azken urteetan bezala, ipuingintza eta antzerkigintza sarituko dira Lehiaketa honetan. Ipuinei dagokienez, gutxienez 6 orrialdekoak izan beharko dira eta gehienez 20koak; antzerki lanak, berriz, edozein motatakoak izan daitezke, gutxienez 75 minutukoak eta, gehienez ere, 120koak. Lanak onartzeko epea aurtengo urriaren 30ean itxiko da, eta ezagutzera 1999ko urtarrilean emango dira.

Euskaraz zein gaztelaniaz, sariak berdinak izango dira: 700.000 pezeta ipuingintzako irabazleari; 1.200.000 pezetakoa antzerki lanentzat.



Euskara enpresetan

Euskara Arlo Sozioekonomikoan / *El Euskera en el Ambito Socioeconómico* izeneko liburuxka argitaratu berri du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, enpresei era erraz eta ulergarrian, lan-mundua eta euskara elkartzeko bideak erakutsi eta eskaintzeko. Enpresetan garatzen ari diren euskararen erabilera-ko planak nolakoak diren eta nola bideratu daitezkeen adierazten dira. Azalpena emateaz gain, balorazioa ere egiten da plan hauetaz, enpresetako munduan izen ezagun eta ospetuen iritziz.

Iritziak

JOXE RAMON ELORTZA IKERLANeko giza baliabideen arduraduna

Erantzukizun du kooperatibismoak euskararen normalizaziorako prozesu honetan. Gure onena ematera behartuta gaude. Eta hauxe da euskara lanean bizi-berritzen hasteko unea, lehenago ere irakas-kuntzan ikastolekin egin zen bezalaxe.



BALTASAR ERRAZTI NAVARRO CONFEBASKEko lehendakaria

Euskarak tokia eta espazioa behar du gure enpresetan eta hizkuntz normalizazioaren aldeko apostua egin behar dugu laneko harremanetan ere gure gertuko inguru-nearen helburuei ekarpenak egiteko.



JOSE M^a KORTA ADEGIko lehendakaria

Euskara enpresa munduan txertatzeko eta bultzatzeko ekin-bide guztiak txaloga-riak eta beharrezkoak dira enpresari gipuzkoarrentzat. Bide batez, belaunaldi berriak euskaraz bizitzen ari direnez, euskaraz jardutea da eta izango da beraiarentzat ingurunerik normalena.



JULEN MADARIAGA MAIEReko kalitate-arduraduna

Euskara komunikazio-tresnatzat jo eta erabiltzea da MAIEReko Hobekuntza-prozesuaren gakoetako bat, erabilera horrek hitzak eta esanahiak gertuagotuko dituelako. Kalitateak eta euskarak ezinbestez, lotuta joan behar dute enpresa euskaldunean.



JOSE M^a VAZQUEZ EGUSKIZA CIMVeko lehendakaria

Aberastasuna sortzen duten enpresa eta enpresariak badute, nire uste-tan, rol eta betebeharrak ugari oreka sozialean, eta ondorioz, oraindik ere protagonismo handiagoa eskuratzeko dute.



SANTIAGO ZABALETA ELAY Taldeko zuzendari gerentea

Euskararen erabilera areagotzeko egitasmoak, nolabait, langileen integrazioa bultzatu du Elay taldeko Lantegi Proiektuan. Euskararen erabilera areagotzeko egitasmoak aurrera egiteak, porrot egin gabe, enpresak proiektu aurrerakoiei aurre egiteko duen gaitasuna azaltzen du.



Etengabeko prestakuntzarako laguntzak

HOBETUZ, Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak, prestakuntza iraukorreko laguntzak eskaintzen ditu. Aurtengo laguntzek, besteak beste, euskararen erabilera lan-munduan areagotzea dute helburu: euskara lanerako tresna bihurtu dadin, nola enpresen antolakuntzan hala kanpoko harremanetan, hau da bezero eta hornitzaileekin, eta publizitatean. Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da, 1998ko ekainaren 10ean. Eskera egiteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Informazio gehiago 902 22 22 30 telefonoan.

Europako ikerketa-bisitak

Europako Batzordeak, Hizkuntza Gutxiengotuen Europako Bulegoaren lankidetzan, Europako ikerketa-bisitarako deialdia argitaratu du. Ikerketa-bisita hizkuntza gutxiengotuen alde lan egiten duten guztiei zuzentzen zaizkie, oro har. 1998-1999 ikasturtean hurrengo komunitate eta gaiak landuko dira: Katalunia: hizkuntz murgiltzearen ondorioak hezkuntza; Euskal Herriko Iparraldea: bisita orokorra; Gales: komunikabideak; Puglia (Italia): bisita orokorra Pugliako komunitate greziarera; Iparraldeko Schleswigtarak Danimarkan: komunikabideak eta informazio-teknologiak; Galizia: gailegoren sustapena gizarte ekimenari lotutako arloan. Argibideak eta eskabide orriak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzan lor daitezke, 945 18 80 98 telefonora deituta. Eskabideak aurkezteko epea irekita dago uztailaren zehar.



1 Ikerlan

2 Maier

3 Elay

4 CIMV

5 Confebask

6 Adegiko

Irulegi Irratia

Euskararen alde egiten duen lana dela eta, Irulegiko Irratiarentzat izan da aurten Larreko Saria. Duela 17 urte hasi zen Irulegi Irratiaren ibilbidea, etxe pribatu batetik emititzen hasi zenean. Irrati libre bezala sortu zen hura, hazi egin da. Gaur egun 24 orduz emititzen du Irulegi

Irratiak, euskara hutsez, eta Nafarroa Beherea osoan entzuten da. Goizeko 6:30etatik iluntzeko 10:00ak arte esatariek egindako saioek betetzen dituzte orduak; gauetz, berriz, musika nagusi.




Juan Mari Lekuona

Azken urte hauetan literaturaz han eta hemen argitaratutako artikuluak bilduz, Juan Mari Lekuonak bere azken lana argitaratu du: *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*. 22 urteotan autoreak berak argitaratutako hainbat artikulu biltzen dituen liburua mardula da, ia zazpiehun orrialdekoa. Liburuaren aurkezpenean Juan Mari Lekuonak berak azpimarratu zuenez, lanaren helburua pedagogikoa da: *"Eskaintza*

honek esan nahiko luke unibertsitateko eskoletan euskarazko herri literaturaz irakatsi diren gaiak liburu honetan bilduta daudela, horrela erreferentzia zuzen bat eduki dezaten ikasleek".

Lekuonaren ikasle izandako hiru irakasle ere, Elixabete Perezek, Ana Toledok eta Esther Zulaikak hain zuzen, parte hartu dute liburua kaleratzeko orduan.



Lehen begiratuan

Bizialdi laburra baina oparoa Rikardo Arregirena. Hogeita sei urte zituen heriotza heldu zitzaionean auto-istripu batean, 1969ko uztailan. Arregik nazioarteko gaiez, marxismoaz eta ekonomiaz idatzi zuen euskaraz, euskarazko kazetaritza bereziturik ez zegoenean, eta hona zein beste arlo askotara berrikuntza ekarri zuen. Berea da hurrengo esaldia: *"Euskal Herria ez da gizarte itxi bat"*. Orain, gazte ireki honen obra eta bizitzari buruzko analisisa Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* bilduman.



✂ Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: